



Kultur gutun
iberoamerikarra

Estatuburu eta Gobernuburuen
XVI. Goi Bilera Iberoamerikarra
Montevideo. Uruguay
2006, azaroak 4 eta 5

AURKEZPENA

Enrique V. Iglesias

Idazkari Nagusi Iberoamerikarra

Francisco Piñón

Estatu Iberoamerikarren Erakundeko Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Idazkari Nagusia

Iberoamerikaren ezaugarrietako bat bertako kultura eta hizkuntzen aniztasun handia dugu. Nazioen Komunitate Iberoamerikarrak kultur komunitate bat osatzen duela dioen iritzia izango da, ziurrenik, adostasun handiena erdiesten duena. Iberoamerikako aniztasuna ez da kultura desberdinen arteko batuketa bat bakarrik. Aitzitik, Iberoamerikako herrien osotasun hori kultur sistema bateratu baten gisa agertzen da munduaren aurrean, eta bere ezaugarria batasunaren eta desberdintasunaren arteko dinamika hori denez, sormenerako faktore oso indartsua da.

Montevideoko XVI. Goi Bilera Iberoamerikarrak onartu duen Kultur Gutun Iberoamerikarrak, zalantzarik gabe, erregio horretako herrialdeen arteko lankidetzeta eta artikulazio hobea ahalbidetuko du. Tamaina handiko proiektu politikoa da beraz, “Kultur eremu iberoamerikarra” egituratzeko eta Komunitate Iberoamerikarra munduaren aurrean egoera indartsuagoan eta garrantzitsuagoan kokatzeko oinarriak finkatuko dituena, bere baliabide baliotsuenetako batez, hots, bertako kultur aberastasunaz baliaturik.

Kultur gutun hau nazio iberoamerikar bakoitzean garatzeak dakartzan onura zehatzak oso ugariak izan daitezke. Gure barne-dibertsitate horren garapena defendatzea eta erraztea da bere xedea. Erregio honetan formula eta tratamendu komunak sustatu nahi ditu, herrialde iberoamerikarrak ahots koordinatu batez ager daitezen kultur gaietan, bereziki egilearen eskubideari, kultur ondareari edo kultur industriei loturiko gaietan.

Agiri honek herrialde iberoamerikarren arteko kultur lankidetzeta bultzatzen du eta bertako kultur aberastasuna hobeto ezagutzeko baliabideak eskaintzen ditu, erregio honetako kultur ondasun eta produktuak batetik bestera hobeto mugitzeko baldintzak sortzearekin batera.

Lankidetzarako borondatezko konpromiso bat da, Estaturen arteko elkartasunetik sortua, eta kulturaz duen ikuspegi integrala argi eta garbi geratzen da horrek dituen aplikazio-eremuen ugaritasunean: giza eskubideak eta kultur eskubideak, kultura tradizionalak, indigenak, afrikarren ondorengoak eta populazio migratzaileak, kultur sektorearen berezko eremuak hala nola sorkuntza artistikoa eta literarioa, kultur industriak, egile eskubideak eta kultur ondarea, edo politika publikoen beste eremu batzuekin kulturak dituen harremanak, esaterako, hezkuntzarekin, ingurumenarekin, zientzia eta teknologiarekin, komunikazioarekin, ekonomia solidarioarekin eta turismoarekin.

Idazkaritza Nagusi Iberoamerikarrak eta Estatu Iberoamerikarren Erakundeko Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Idazkaritza Nagusiak, bakoitzak bere jardueraren eremuan eta modu koordinatuan, XVI. Goi Bilera honen konpromiso politikoa eta irizpidea gorpuzteko baliabideak eta programak sustatuko dituzte, gizarte eta kultur

arloko eragile guztiak bilduz: gizarte zibilaren ordezkariak, sortzaileak, ekintzaileak eta Iberoamerikako administrazio eta kultur erakundeak.

Adierazpen politiko honen bidez, Nazioen Komunitate Iberoamerikarrak lankidetzaren aldeko mezu unibertsal bat zabaldu nahi du, kultura baliabide gero eta indartsuagoa izan dadin herritarrak duintzeko eta herrien artean elkarrizketa sustatzeko orduan.

KULTUR GUTUN IBEROAMERIKARRA

HITZAURREA

Herrialde iberoamerikarretako Estatuburu eta Gobernuburuok:

Guadalajaran (Mexiko, 1991) egindako I. Goi Bilera Iberoamerikarraren Adierazpenean jasotako printzipioak kontuan izanik, eta “herri, odol eta sinesmen desberdinen batasunean oinarritutako kultura baten sustraiak eta ondare aberatsa partekatzen dugun nazio multzo zabala ordezkatzeko dugula” jakinik, eta halaber, “batasunerako borondate hori ez dagoenez kultur ondasun komunean bakarrik oinarritua, baizik eta gure jatorrien aberastasunean eta adierazpide anizkoitzean”;

Kulturaren alorrean baliatutako tresnen eta abian jarritako ekintzen garrantzia berretsiz, horiek indartzeari eta kultur trukeak zabaltzeari begira, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) kulturaren alorrean eta, zehazkiago, “Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpenean” (2001) jasotako printzipioak, eta halaber, “Kultur Adierazpenen Aniztasuna Babestu eta Sustatzeari buruzko Biltzarrean”, Parisko hirian (2005) UNESCOren XXXIII. Batzar Nagusian onetsi zena, eta bereziki, bertako 12, 13 eta 14. artikulak;

Nazioarteko erakundeek egindako kultur garapenerako programak eta erregio mailako lankidetzak-mekanismoak aitortuz eta balioetsiz, eta bereziki, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Estatu Iberoamerikarren Erakundeak (EIE) kultur lankidetzak garatzeko erakunde gisa betetzen duen eginkizun esanguratsua, eta halaber, Idazkaritza Nagusi Iberoamerikarrak (SEGIB) Iberoamerikako lankidetzak indartzeari begira bere gain hartu dituen funtzioak;

Konbentziturik kultura eta kulturaren kudeaketa ongien sistema demokratikoetan gauzatzen eta garatzen direla, eta esparru horrek adierazpen-baliabideak libreki sortzea ahalbidetzen duela eta herriek eta, bereziki, sortzaileek, eramaileek eta hartzaileek kulturaren parte har dezatela bermatzen duela;

Konbentziturik, halaber, kultura askatasunezko eta justiziazko marko batean, hots, giza eskubideak aitortzen eta babesten dituen marko batean gauzatu eta garatu behar dela, eta kultur adierazpen eta agerkariak gauzatzea eta erabiltzea funtsezko eskubidetzat hartuak izan behar dutela;

Kultura herritartasunaren dimentsio gisa ulerturik, gizarte-kohesioa lortzeko eta gizarteratzeko funtsezko elementua dela kontuan izanik, eta aldi berean, konfiantza eta auto-estimua ahalbidetzen diela, gizabanakoei ez ezik, baita horiek parte direneko komunitate eta nazioei ere;

Jakinaren gainean mundializazio-prozesuak desoreka eta asimetria sakonak dituela bere abiapuntuan, eta dinamika hegemonikoen eta kontrahegemonikoen testuinguruan garatzen dela, eta halaber, hainbat arrisku eta arrisku, elkarrekiko eragin eta onura dakartzala eta sakontzen dituela herrialde iberoamerikarretako kulturetan;

Munduko beste herri eta kultura batzuei egiten diegun ekarpen berezia azpimarratuz, betiere bakearen kultura eraiki dadila sustatzeko asmoz egiten duguna, trukean, kulturen

arteko elkarrizketan eta lankidetzan oinarritua, nazio eta nazioarte mailan elkarrekin hobeto bizi gaitezen lortzeari begira;

Kultur aniztasuna giza existentziarako funtsezko baldintza dela azpimarratuz, eta kontuan izanik bere adierazpideak faktore baliotsua direla gizaki guztion aurrerapen eta ongizaterako, aniztasun hori etengabe erabili, onartu, geureganatu eta zabaldu behar dugularik gure gizarteak aberatsagoak izan daitezen;

Aitortuz kultur aniztasuna lurralde eta mundu sinbolikoak gorpuzten dituzten nortasunetan gauzatzen dela, eta nortasun horiek beren ondaretik eta ondasun edo obra horiek sortuak diren inguruetatik edo beren natur testuinguruetatik bereiztezinak direla;

Kultura guztiek duintasun berbera dutela dioen printzipioa azpimarratuz, eta kontuan izanik prebentzio-neurriak hartu behar direla kultura tradizionalak eta gutxiengotzat jotzen diren taldeenak aitortu, defendatu, sustatu eta babesteko;

Tokian tokiko komunitateek eta populazio indigenek beren ezagutza eta teknologia tradizionalak erabiliz lortzen dituzten onuren gaineko eskubidea dutela aitortuz;

Iberoamerika sistema handi bat bezala agertzen dela berretsiz, bertan elementu paregabeak eta ez-ohikoak daudela, eta kultur ondare komun eta era askotakoaren jabe dela, ezinbestean sustatu eta babestu beharrekoa dena;

Iberoamerikako kultura anizkoitza, berezia, unibertso osoan zabaldua dagoela aitortuz, herrien adierazpen berezia irudikatzen duena eta kultur aberastasun handiaz hornitua dagoena, horren adierazpen esanguratsuenetako bat hizkuntzak eta beren aldaerak direlarik, kulturen arteko ekarpenen aniztasunaren emaitza gisa harturik.

Konbentziturik herri indigenak duintzeak herri horien hizkuntzak berreskuratzea eta babestea dakarrela, beren nortasuna indartzeko faktore gisa.

Kulturak ekonomian duen balio estrategikoa eta erregioaren garapen ekonomiko, sozial eta iraunkorrari egiten dion funtsezko ekarpena nabarmenduz;

Konbentziturik kultur arloko jarduera, ondasun eta zerbitzuek izaera sinbolikoa duten hainbat balio eta eduki biltzen dituztela, zehatz-mehatz horien alderdi ekonomikoa baino lehenagokoak direnak eta hura gainditzen dutenak.

Sorkuntza-lan intelektualak eta eskubidea sortzaileen aitortzarekin eta bidezko ordainketarekin orekatu beharrak duen garrantzia onartuz, kultura denon eskura egon dadila bermatuz;

Kultur aniztasuna elkarreragin librearen eta trukeen bitartez elikatzen eta sustatzen dela aitortuz, kultura guztien arteko berdintasunezko baldintzetan, nazioarteko lankidetzaren bitartez;

Hainbat fenomeno ekonomiko eta sozialen ondorioz, hala nola barne-desplazamenduak, migrazioak, hiri-dinamikak, teknologien garapena eta abar, sortutako kulturen presentzia aitortuz; kultura horiek narratiba eta estetika berriak sor daitezela bultzatzen dituzten aldetik eta kulturen arteko elkarrizketak sendotzen dituzten aldetik;

Kultur eremu iberoamerikar bat finkatzen laguntzeko erabakimenaz, batzuen eta besteen esperientziak hurbilduz eta Estatu Iberoamerikarren arteko lankidetzaren bidez aberastua; eta

Kontuan izanik Kulturako Ministroen Bilerek eta Kultur Politika Iberoamerikarren Arduradunek egindako Adierazpenak; Costa Ricako San Joseko Adierazpenean (2004) itundutakoa, “Nazioen Komunitate Iberoamerikarraren oinarrian dagoen kultur aniztasuna sustatzea eta babesteari” dagokionez, eta halaber, “Iberoamerikan kultur lankidetzarako mekanismo berriak, gure kultur aniztasunaren nortasunak eta aberastasuna indartuko dituztenak eta kulturen arteko elkarriketa sustatuko dutenak”; “Cordobako Adierazpenean” (2005) itundutakoa, non XV. Goi Bilera Iberoamerikarreko Estatuburu eta Gobernuburuak proposatzen baitzaie Kultur Gutun Iberoamerikar baten proiektuaren prestakuntzan aurrerapenak egin ditzaten, “gure herrialdeek duten kultur eremu komuna” indartuko duena eta “kultur lankidetzaren iberoamerikarrerako tresna berritzailea” finkatuko duena; eta bidenabar, “Salamancako Adierazpenean” (2005) itundutakoa, non erabaki baitzen “Kultur Gutun Iberoamerikar bat prestatzea, gure kultur adierazpenen aniztasunaren ikuspegitik, Iberoamerikako lurraldea finkatzen eta gizakia erabat garatzen eta pobrezia gainditzeko lagunduko duena”;

ADIERAZTEN DUTE:

I. HELBURUAK

- kulturaren funtsezko balioa berrestea, gizakia osoki garatzeko eta pobrezia eta desberdintasuna gainditzeko ezinbesteko oinarri gisa.
- kultur aniztasuna sustatzea eta babestea, kultura iberoamerikarraren jatorri eta oinarri den aldetik, eta halaber, hori osatzen eta aberasten duten nortasun, hizkuntza eta tradizioen aniztasuna ere.
- kultur eremu iberoamerikarra sendotzea, eremu propio eta berezi gisa, elkartasunean, elkarrekiko errespetuan, subiranotasunean, ezagutza eta kultura denok eskuratzeko gaitasunean eta kultur trukean oinarriturik;
- kultur arloko ondasun eta zerbitzuen trukeak erraztea kultur eremu iberoamerikarraren barruan.
- kultur eremu iberoamerikarrak munduko beste erregio batzuekin elkartasunezko eta lankidetzazko loturak eduki ditzala sustatzea, eta halaber, kulturen arteko elkarriketa bultzatzea herrialde guztien artean, eta
- kultur eta natur ondare iberoamerikarra, materiala nahiz ez-materiala, babestu eta zabaldu dadila sustatzea, herrialdeen arteko lankidetzaren bitartez.

II. PRINTZIPIOAK

KULTUR ESKUBIDEAK ONARTU ETA BABESTEAREN PRINTZIPIOA

Kultur eskubideak funtsezko eskubide gisa ulertu behar dira, unibertsaltasun, zatiezintasun eta interdependentziaren printzipioei jarraiki. Giza eskubideen izaera integralaren markoan garatzen da, eta era horretan, jarduera horrek berak gizabanako eta multzo guztiei beren gaitasun sortzaileak gauzatzeko aukerak eta erraztasunak ematen dizkie, eta halaber, kultura eskuratzea, parte hartzea eta erabiltzea ahalbidetzen die. Eskubide horiek erabateko herritartasunaren oinarria dira eta gizabanakoak kulturaren eremuko jardueren protagonista bilakatzen ditu gizarte-kolektiboaren baitan.

PARTE HARTZEAREN PRINTZIPIOA

Herritarren parte-hartzea funtsezkoa da nazio-eremuan eta kultur eremu iberoamerikarrean kulturak garatzeko. Parte hartze hori beren adierazpide guztietan erraztuko duten arau-markoak eta erakunde-markoak ahalbidetu behar dira.

ELKARTASUNAREN ETA LANKIDETZAREN PRINTZIPIOA

Herrien eta herrialdeen arteko elkartasunak gizarte zuzenagoak eta berdintasun handiagokoak eraikitzea sustatzen du, asimetria txikiagoak dituen Komunitate Iberoamerikar baten barruan.

Lankidetzaz horizontala, errespetuan eta lan mankomunatuan oinarritua, kultur eremu iberoamerikarraren baliabide pribilegiatua da.

ZABALTASUNAREN ETA OREKAREN PRINTZIPIOA

Kulturaren alorrean trukeak egiteko eta hartu-emanak izateko lankidetzaz erraztu behar da, elkarrekikotasunez eta orekaz, kultur eremu iberoamerikarraren baitan.

ZEHARKAKOTASUNAREN PRINTZIPIOA

Jarduera publikoen osotasunean funtsezkoa da kultur eremu iberoamerikarrean aniztasuna sustatzeko eta sendotzeko eduki dezakeen kultur ikuspegia.

OSAGARRITASUNAREN PRINTZIPIOA

Kultur programa eta ekintzek ekonomia, gizarte eta kulturaren alderdien artean egon behar duen osagarritasuna islatu behar dute, Iberoamerikaren garapen ekonomikoa eta soziala indartu beharra dagoela kontuan izanik.

KULTUR ARLOKO JARDUERA, ONDASUN ETA ZERBITZUEN BERARIAZKOTASUNAREN PRINTZIPIOA

Kultur arloko jarduera, ondasuna eta zerbitzuek izaera sinbolikoa duten balio eta edukiak dauzkate beren baitan, alderdi ekonomikoak baino lehenagokoak direnak eta hura gainditzen dutenak.

GARAPEN IRAUNKORRARI, KOHESIOARI ETA GIZARTERATZEARI LAGUNTZEKO PRINTZIPIOA

Garapen ekonomiko eta sozial iraunkorren prozesuak, eta halaber, gizarte-kohesioa eta gizarteratzea, kulturaren alderdia erabat kontuan hartzen duten eta aniztasuna errespetatzen duten politika publikoekin batera doazenean bakarrik gauza litezke.

KULTUR POLITIKAK DISEINATZEN ETA APLIKATZEN ESTATUEK DUTEN ERANTZUKIZUNAREN PRINTZIPIOA

Estatuek, nazio-subiranotasuna gauzatzean, kultur ondarea eta aniztasuna babesteko eta sustatzeko politikak prestatu eta aplikatzeko ahalmena eta erantzukizuna dute.

III. APLIKAZIO-EREMUAK

KULTURA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Giza eskubideak sustatu eta sendotzeko orduan kulturaren eginkizuna indartzearen garrantzia onartzen da, eta kultur politiken diseinuak eta kudeaketak giza eskubideak zaindu, erabat errespetatu eta indarrean mantentzearekin bat etorri behar dutela adierazten da.

Era berean, asimetriak konpentsatzeko eta erabateko herritartasuna gauzatu dadila bermatzeko ekintza berresleak abiaraztea egoki dela onartzen da.

KULTURA TRADIZIONALAK, INDIGENAK, AFRIKARREN ONDORENGOENAK ETA POPULAZIO MIGRATZAILEENAK

Kultura tradizionalak, indigenak, afrikarren ondorengoak eta populazio migratzaileenak, beren adierazpen-modu desberdinetan, kultura iberoamerikarraren eta kultur aniztasunaren parte oso garrantzitsua dira, eta gizateria osoarentzat funtsezko ondare ditugu.

Helburu horri begira, egoki da:

- kultura hauek garatu daitezela sustatzeko eta babestu, zaindu eta zabalduko direla bermatzeko neurriak hartzea;

- kultura hauen elementu artistiko eta tradizionalak sustatzea, beren balio, teknika, erabilera eta berrikuntzak ezagutzea, eta horietaz bidegabeki jabetu daitezela eragozteko, horien jabe diren komunitateen kaltetan;

- kultur adierazpenen jatorriak eta beren ezagutza, berrikuntza eta praktiken inguruan erabakiak hartzeko eskubidea onartzea;

- ezagutza, berrikuntza eta praktika horiez baliatzeak ekarritako onuren bidezko ordainketaren printzipioa eta berdintasuneko banaketarena gauzatzeko baldintzak bermatzea;

- indigenen, afrikarren ondorengo eta populazio migratzaileen kultur ondarearen balioa eta aniztasuna aitortzea, hiriko bizitzako maila guztietan erabat parte har dezaten errazteari begira;

- populazio migratzaileek gure herrialdeetan kultur artekotasunerako prozesuari egin dioten ekarpenen aberastasuna onartzea; eta

- arrazakeria, arraza-bereizkeria, xenofobia eta antzeko intolerantzia-moduak oraindik ere gure gizarteetan daudela onartzea eta horiei aurre egin beharra berrestea.

SORKUNTZA ARTISTIKOA ETA LITERARIOA

Literatura eta arteak nortasun iberoamerikarren eta gure kultur aniztasunaren aberastasunaren berezko adierazpidea dira, eta sustatu beharreko adierazpen-aukera itzela dira.

Sormen artistikoak zentzuak eta nortasuna pizten ditu, ondarea aitortu eta aberasten du, ezagutza sortu eta gure gizarteak eraldatzen ditu. Horregatik, funtsezkoa da sorkuntza literarioa eta artistikoa sustatzea, herritar guztiek erabiltzea eta arte-hezkuntza denontzat eskuragarri izatea.

KULTURAREN ETA SORKUNTZAREN INDUSTRIAK

Kulturaren eta sorkuntzaren industriak funtsezko baliabideak dira kultura sortu eta zabaltzeko, nortasunak adierazteko eta berresteko eta aberastasuna eta hazkundera sortzeko.

Industria horiek sortzen dituzten ondasun eta zerbitzuak demokrazia zabalagoarekin eskuratu daitezela bermatzeko xedez, eremu iberoamerikarreko kultur aniztasuna adieraziko duten edukiak modu orekatuagoan trukatzeko eta gehiago zabaltzeko baliabide gisa harturik, honako jarduerak bultzatuko dira:

- kultur eremu iberoamerikarrean kultur edukiak sor daitezela eta kultur arloko jarduera, ondasun eta zerbitzuak banatzeko egiturak eratu daitezela sustatzea eta bultzatzea;

- eremu iberoamerikarrean nahiz kanpoan bertako kultur ondasunak eta zerbitzuak ezagutzera ematen laguntzen duten lankidetzak-mekanismoak ezartzea, zinemagintzaren eta ikus-entzunezkoen, musikaren eta libururen sektoreari arreta berezia eskainiz.

- erregio honetan kultur ondasunak batetik bestera libreki mugi daitezela ahalbidetzen duten mekanismoak egituratzea, gure herrien arteko lankidetzaz eta kultur aberastasuna ahalik gehiena sustatzeko helburu nagusiarekin, gure erakusketak helburu ez-komertzialekin arintasunez trukatzuz;

- teknologia eta ezagutzak ezagutzera emateko pizgarriak eta lankidetzaz-bideak sustatzea, aurrerapen gutxiago izan dituzten herrialdeetan industria hauek indartzen lagunduko dutenak;

- kulturaren eta sorkuntzaren industrien inguruko eta kulturaren ekonomiako gainerako eremuen inguruko estatistikak eta azterketak trukatu eta garatu ditzatela sustatzea; eta

- kultur eremu iberoamerikarrean kultur arloko jarduera, ondasun eta zerbitzuak elkarrekin ekoitzi eta elkarrekin banatzeko erabakiak sustatzea, eta kulturaren eta sorkuntzaren industria hasberria den herrialdeei lehentasunez eskuratzeko aukera ematea.

EGILE ESKUBIDEAK

Kultura, zientzia eta hezkuntza arloko obretan adierazitako sorkuntza-lanei pizgarriak emango zaizkie eta babestu egingo dira, sortzaileen eskubideak nazioen garapenerako eta ongizaterako iturri direla aitortuz, betiere informazioa, ezagutza eta kultura denontzat eskuragarri egon daitezela bermatuz.

Alternatibak sustatuko dira egilearen eskubideak babesteko, teknologia berriek ekarritako erronkei aurre egiteko, sorkuntza-modu berritzaileak denontzat eskuragarri izateko eta kultur ondasun eta zerbitzuak ezagutzera emateko.

KULTUR ONDASUNA

Kultur ondarea munduaren aurrean agertzeko modu orijinal eta errepikaezinen esperientzia luzea da, berak erakusten digu komunitate iberoamerikarrek izandako bilakaera, eta horrexegatik da beren nortasunaren oinarritzko erreferentzia.

Kultur ondare iberoamerikarren parte dira bai ondare materiala eta bai ez-materiala ere, eta bata nahiz bestea, nahitaez errespetatu eta babestu beharrekoak dira.

Komunitate tradizionalen, indigenen eta afrikarren ondorengoen kultur eta hizkuntz adierazpenak kultur ondare iberoamerikarren parte dira, eta beren eskubideak aitortuak dituzte.

Kultur ondarea aitortuz, ezagutzera emanez, sustatuz eta neurri egokiak betez babesteko beharrezkoa da gizarte osoak parte hartzea, eta hori botere publikoaren funtsezko erantzukizuna da.

Gizartea ondareaz jabetzeak bermatuko digu ondare hori babestea eta herritarrek horretaz baliatu eta erabiltzea.

Kultur ondare iberoamerikarra aitortu eta babesteko helburuarekin, lankidetzaz sustatzen da, kultur ondasunen legez kanpoko esportazioa eta trafikoa eragozteko eta legez kanpo esportatutako ondasunak berreskuratzeko.

KULTURA ETA HEZKUNTZA

Kulturaren eta hezkuntzaren artean dagoen harreman estua dela eta, beharrezkoa da:

- hezkuntza-sistemetan, Iberoamerikako kultur aniztasunari buruzko ezagupenak eta balioespenak indartzea;

- hezkuntza-planetan eta hezkuntza-programetan publiko kultural kritikoaren sormena eta heziketa bultzatzeko gaiak barneratu daitezela ahalegintzea;

- kultura eta historia iberoamerikarraren edukiak barneratzea, ikasketa-planetan beren osagai berezkoak eta nortasunarekin loturikoak berretsiz eta ikasketaren erregio-ikuspegia sustatuz:

- komunitate tradizionalak eta indigenak bizi diren tokietan, heziketa-planetan eta heziketa-programetan beren hizkuntzak, balioak eta ezagupenak barneratu ditzatela eraztea, gizarte, kultur eta araugintza mailan erabateko onarpena eskainiz; eta

- herritar guztiei alfabetatzeko eta oinarrizko hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatzea, eta halaber, irakurketa landu dadila eta liburuak irakur daitezela sustatzea, eta liburutegi publikoak kulturaren sustapenerako zentro gisa bultzatzea.

KULTURA ETA INGURUMENA

Kultura, natura eta ingurumena hertsiki loturik daude. Harreman hori sendotzeko beharrezkoa da:

- iraunkortasunaren kultura sustatzea;

- ingurumen-ondarea eta kultur ondarea babesteko eta balioesteko neurriak koordinatzea.

- ingurumenaren balioespena sustatzea, kultur ondarearen parte gisa.

KULTURA, ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Iberoamerikaren kultur garapenerako beharrezkoa da erregio horretan zientzia eta teknologia indartzea, ikuspegi solidario batetik, interes orokorraren mesederako.

Helburu horri begira, egoki da:

- nazio eta erregio mailako politikak sustatu eta indartzea, eta halaber, zientzia eta teknologiaren inguruko ikerketak sustatu eta ezagutzera emateko Iberoamerikan lankidetzak bultzatzea;

- herritarren sektore guztiei berrikuntza teknologikoak eta horien onurak eskuratzeko erraztasunak ematea; eta

- teknologia berriak garatu eta erabil daitezela sustatzea, kultur ondasunak eta zerbitzuak sortu, ekoitzi, ezagutzera eman eta sustatzeko aukera gisa, eta halaber, publiko berriak sortzen laguntzea eta herrialdeen artean kultur trukeak egitea.

KULTURA ETA KOMUNIKAZIOA

Hedabideak sormenerako eszenatokiak dira, eta kultur aniztasuna ezagutzera emateko eta sustatzeko baliabide garrantzitsuak. Alde horretatik, beharrezkoak dira honako ekintzak:

- komunitateek eta gizarte-taldeek teknologiak eta hedabideak eskuratu ahal izan ditzatela erraztea;

- eremu iberoamerikarrearantz hedabideak sor daitezela ahalbidetzea, erregio horretan eta munduan kultur adierazpide desberdinek leku bat izan dezaten;

- hedabideei dagokien kultur zerbitzu publikoaren eginkizuna balioestea; eta

- herritarren eta komunitateen hedabideak garatu daitezela sustatzea, tokiko komunitateen arteko elkarrizketa bultzatzen dutenean eta testuinguru publikoan aniztasunaren presentzia aberasten dutenean.

KULTURA ETA EKONOMIA SOLIDARIOA

Ekonomia solidarioaren esparruan barneratzen diren kultur ondasun eta zerbitzuen sorkuntza, ekoizpena eta zirkulazioa errazteko ekintzak sustatuko dira.

Kultur politika publikoek beren alderdi guztietan aitortu behar dituzte sorkuntza hauek, horiek garatzeko baldintzak sortuz, horien balioespina eta aitorpena sustatuz, bai nazio mailan eta bai kultur eremu iberoamerikarrearantz ere, eta halabe, munduko beste erregio batzuekin duen harremanean.

KULTURA ETA TURISMOA

Kultura eta turismoaren arteko harremanak ekintza berriak sorrarazten ditu, turismo-zerbitzuetan kulturaren helburuak eta interesak hazi egiten direlako. Harreman horrek desafio eta arrisku berriak dakartza, ondarea babestea eskatzen dutenak. Halaber, aprobetxatu beharrezkoak diren aukerak eskaintzen ditu, eta horretarako:

- turismo-jarduerek errespetuz eta kontu handiz jokatu behar dute tradiziozko kultur adierazpenekin, beren benetakotasuna zainduz;

- turismo-jardueren onurek, bai materialek eta bai ez-materialek ere, kultur adierazpenen iraunkortasunean lagundu behar dute, eta

- kulturaren politika publikoak planifikatzen direnean, kontuan hartu beharra dago turismo-sektorearen dinamika.

IV KULTUR EREMU IBEROAMERIKARRA

Iberoamerika kultur eremu dinamiko eta berezia da; bertan, sakontasun historiko nabarmena, jatorrien ugaritasuna eta era askotako adierazpenak nabari dira.

Ñabarduren ugaritasun hori onartuko duen eremu iberoamerikar bat finkatzeak beste kultura batzuekin mintzatzen diren ahotsak daudela esan nahi du.

Beharrezkoa da lankidetzarako erregio-egiturak indartzea, Iberoamerika eszenategi orokorrean txertatzeko baldintza hobek sortzeko helburuz.

Marko horretan sustatuko dira Kultur Gutun honetan aldarrikatzen diren baieztapen, ideia eta balioak, kultur eremu iberoamerikarraren eraikuntzarako ildo gidari gisa hartuta.